

XXXX. Salvatore Mitxelena Saria 2021-2022

“Ago geldi” –izarñoak
intz-malkoz zesaidaten
ta ilargiak: utzi zak
maitetasuna abesten.

A.S. Mitxelena

Zarauzko Udalak herriko haur eta gazteengan
idazteko zaletasuna bultzatzeko
XXXX. SALBATORE MITXELENA SARIA antolatu du.

1. Parte-hartzaileak:

Zarauzko ikastetxeetako ikasle guztiek har dezakete parte literatur sari honetan, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasita.

2. Mailak eta sariak:

A.- Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila:

A₁ : 3. maila: Ipuina.

1. saria: 70 euro liburutan eta diploma.
2. saria: 45 euro liburutan eta diploma.

A₂ : 4. maila: Ipuina.

1. saria: 70 euro liburutan eta diploma.
2. saria: 45 euro liburutan eta diploma.

B.- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila:

Ipuina

1. saria: 120 euro liburutan eta diploma.
2. saria: 90 euro liburutan eta diploma.
3. saria: 60 euro liburutan eta diploma.
4. saria: 45 euro liburutan eta diploma.

Olerkia

1. saria: 120 euro liburutan eta diploma.
2. saria: 90 euro liburutan eta diploma.
3. saria: 60 euro liburutan eta diploma.
4. saria: 45 euro liburutan eta diploma.

C.- DBHko 1.eta 2. maila:

Ipuina

1. saria: 90 euro eta 60 euro liburutan.
2. saria: 60 euro eta 45 euro liburutan.
3. saria: 45 euro eta 30 euro liburutan.

Olerkia

1. saria: 90 euro eta 60 euro liburutan.
2. saria: 60 euro eta 45 euro liburutan.
3. saria: 45 euro eta 30 euro liburutan.

D.- DBHko 3. eta 4. maila:

Ipuina

1. saria: 150 euro eta 60 euro liburutan.
2. saria: 120 euro eta 45 euro liburutan.
3. saria: 90 euro eta 30 euro liburutan.

Olerkia

1. saria: 150 euro eta 60 euro liburutan.
2. saria: 120 euro eta 45 euro liburutan.
3. saria: 90 euro eta 30 euro liburutan.

E.- Batxilergoa / Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

Ipuina

1. saria: 240 euro eta 60 euro liburutan.
2. saria: 180 euro eta 45 euro liburutan.
3. saria: 120 euro eta 30 euro liburutan.

Olerkia

1. saria: 240 euro eta 60 euro liburutan.
2. saria: 180 euro eta 45 euro liburutan.
3. saria: 120 euro eta 30 euro liburutan.

3. Baldintzak:

- a) Egilea Zarauzko ikastetxeren bateko ikaslea izatea.
- b) Lanak euskaraz idatziak izatea.
- c) Lanak originalak izatea.
- d) Gaia librea izango da.
- e) Ez da bertsozik onartuko.
- f) Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake.

4. Lanak nola aurkeztu:

- a) Aparteko orri batean datu hauek adieraziko dira: lanaren izenburua, egilearen izen-deiturak, adina, helbidea, telefonoa, e-maila, ikastetxea eta maila.
- b) Lanak ordenagailuz nahiz eskuz idatzita bidal daitezke, DIN A-4 neurriko orrietan, orrialdeak zenbatuta. Ordenagailuz bada kolorerik ez, txuri-beltzean izan behar du. Boligrafoz bada: urdinez edo beltzez.
- c) Originala bidaliko da beti.
- d) Lan bakoitzak egile bakarra izango du.
- e) Ez da onartuko arkatzez egindako lanik.
- f) Saritutako lanak posta elektronikoz bidali beharko dira argitalpena prestatzeko hezkuntza@zarautz.eus

5. Lanen luzera:

- A mailako ipuinak: orrialde 1 edo 2.
B eta C mailako ipuinak: 2 eta 5 orrialde bitartean.
D mailako ipuinak: 3 eta 6 orrialde bitartean.
E mailako ipuinak: 3 eta 8 orrialde bitartean.
B mailako olerkiak: 15 eta 30 lerro bitartean.
C mailako olerkiak: 30 eta 100 lerro bitartean.

D mailako olerkiak: 50 lerro gutxienez.

E mailako olerkiak: 75 lerro gutxienez.

6. Lanak aurkezteko epea:

Lanak Hezkuntza Departamentuan aurkeztu behar dira, 2022ko otsailaren 11a baino lehenago.

7. Datuak aurkezteko epea:

Irabazleen argazki eta datuak maiatzak 31 baino lehenago bidali beharko dira.

8. Epaimahaia:

A eta B mailetarako epaimahai bat osatuko da eta C, D eta E mailetarako beste bat. Ikastetxeek eta herriko zenbait idazlek hartuko dute parte epaimahaian.

Zarauzko Udalak bere ordezkaria izango du epaimahaian eta idazkari bat ere izendatuko du. Udal ordezkari hori izango da epaimahaiburua eta bera arduratuko da gaiak bideratzeaz; lan-teknikoari dagokionez, berriz, epaimahaikide adituek izango dute erabakitzeke ahalmena.

9. Sari-banaketa:

Sari-banaketa 2022ko maiatzean izango da.

10. Argitalpena:

Saritutako lanak argitaratu egingo ditu Zarauzko Udalak.

11. Lege barrutia:

Zarauzko Udalak saritutako lanak ustiatzeko eskubidea izango du, sariaren zenbatekoaz gain bestelako ordainketarik egin gabe, horixe izango baita ordainketa bakarra eta guztizkoa; beraz, egileek hitz emango dute ondorengoetarako:

- a) Mugarik gabeko epean eta argitaratu zein merkaturatzeko erabiltzen den modua edozein dela ere (paperean nahiz edizio digitalean), lanak erreproduzitu, eta banatzeko eskubideak Zarauzko Udalaren esku uzten dituztela.
- b) Udalak eskubidea du bere kabuz edo argitaratzeko zerbitzu publiko edo pribatuaren bitartez, beharrezko iruditzen zaizkion edizioak argitaratzeko; edizio bakoitzerako ale kopurua Udalak erabakiko du.

Zarautzen, 2021eko abenduaren 13an



ZARAUZKO UDALA

Hezkuntza Departamentua